

DIRU-SARRERAK

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure enpresan dauden diru-sarrerak eta irteerak ikusita jarri dugu prezioa. Kontuan hartu duguna ere, gure konpetentziak duen prezioa. Xiaomirekin ere hitz egin dugu, beraien konpetentzia garelako eta haiek uzten digutelako pieza batzuk.

Pentsatu dugu prezioa ez oso altua jartzea, gaur egun dendetan aurkitu ditzakegun patinete gehienek 400 eurotik gora balio dute eta guk finkatutako prezioa 325 eurokoa da. Kalkulatu dugu eta gure materiala eta kanpotik bidalitakoa ondo administratuta prezio honekin irabaziak asko izan genitzake. Ordaintzeko eskuz edo internet bidez gure denda onlinean izango litzake.

